

GAITEK PROGRAMA PRODUKTU BERRIAK GARATZEKO PROIEKTUAK EGITEKO LAGUNTZA PROGRAMA

[EBAZPENA](#), 2011ko azaroaren 30ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena; honen bitartez, produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntza-programa arautzen du.

[AGINDUA](#): 2008/11/27 (EHAA 2008/12/23) [ALDAKETA](#): EHAA 2010/01/15

HELBURUA	Produktu berriak garatzea bultzatu, itzuli beharrik gabeko dirulaguntzen bidez.
DIRUZ LAGUNDUKO DIREN PROIEKTUAK	I+G+B jarduera sorta koherentea, jatorrizko produktuak garatze eta lehendik badirenak hobetze aldera, merkatuaren eta gizartearen beharrei hobeto erantzutearren. Diruz lagun daitezkeen I+G+Bko jarduerak: a) Industria-ikerketako proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak. b) Industriako ikerketa-proiektuak. c) Lehiatu aurretiko garapen esperimentaleko proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak. d) Garapen esperimentaleko proiektuak.
ONURADUNAK	<ul style="list-style-type: none"> • Enpresa handiak eta ETEak (enpresa txikiak eta ertainak) • Fundazioak eta enpresa-elkarteak Ez dira onuradun izango: a) Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Eragileak. b) Administrazio publikoekin lotura duten nortasun juridikoa duten Erakunde Publikoak. c) Krisialdian dauden enpresak (2004/11/01eko 2004/C 224/02 EBAOren arabera)
ONURADUNEN BETEBEHARRAK	a) Laguntza fiskal ilegalik edo eta bateraezinik jaso ez izana. b) Diruz lagundu daitezkeen jarduerak berak zuzenean garatzea. c) Proiektuaren gastuetan, gutxienez %25eko ekarpena egitea. d) Diruz lagundutako proiektuek EAEn egon beharko dute gutxienez bost urtez. e) Onuradunak berezko nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasun nahikoa izatea ezinbestekoa izango da; halaber, dirulaguntza publikoak lortzeko edo EAE Administrazioarekin edo beste erakunde publikoren batekin kontratuak egiteko zehapeneko edo gaitasungabetzeko prozeduren batean sartuta ez egotea. f) Enpresa handien kasuan, azaldu egin beharko dute I+G+Bko jardueren kopurua handitzean laguntzeko izan duten eragin sustatzailea. g) Zerga-betebeharrak eguneratuak izatea.
DIRUZ LAGUNDUKO DIREN GASTUAK	<ul style="list-style-type: none"> • Langileen kostuak. • Kanpoko aholkularitzaren eta antzeko zerbitzuen kostuak (erakunde kolaboratzaileetakoak ez diren eta proiektuaren espezializazio maila handiko zati-takoa azpikontratazioa barne hartuta). • Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko Eragileak (horretarako akreditatuak direnak) azpikontratatzeko kostuak. • Esplotaziorako gastuak (material gastuak, hornikuntzakoak, bidaiak, etab..) ikerketarako jardueraren ondorio baldin badira. • Ikerketarako ez beste ezertarako etengabe erabiltzen diren tresnen eta ekipoen kostuak.
AURKEZTEKO AZKEN EGUNA	2012ko martxoaren 30ean
INFORMAZIO GEHIAGO	<ul style="list-style-type: none"> • LEARTIBAI GARAPEN AGENTZIA 94 616 90 88 nurrutibeaskoa@leartibai.com